

# AIURRI

1996ko martxoaren 29a. 33. zenbakia. Dohain banatzen da.

## ALZHEIMER

*Filme bat?*


*Diska bat?*

*GAIXOTASUN bat?*

*Liburu bat?*

*Asmakizun bat?*

MARTXOAK 30



**Oraindik AIURRI  
aldizkaria  
etxean jasotzen  
ez baduzu zeren  
zain zaude?!**

Deitu telefono honetara



**30 07 32**

---

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Jon Unanue: "Behiak erotu?"
2. **GALDEZKA.**  
Eta zuk, ba al dakizu alzheimer-a zer den?
3. **LARRAUL.**  
Baserriak txukuntzeko dirulaguntzak.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Karrikako bizilagunak haserre.  
Askagintzak bi proposamen zehatz egin ditu.  
Politika Plazara: Joseba Arregi.
7. **ASTEASU.**  
Hileta gastuak ordaintzeko hermandadea.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
Kotxe istripua gartzelara bidean.  
Ekintza ugari hirugarren adinekoentzat.
10. **ZIZURKIL.**  
Gaztetxea: noizko eta non?
11. **BASERRIA.**  
Ordezkatze zerbitzua.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Alzheimer; zer da?
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Joseba Erkizia: EIZIEko lehendakari berria.
- 16-17. **KIROLA.**  
Juan Mari eta Peio Garin anaiak.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal  
**Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Beñat Azurmendi.  
**Publizitate arduraduna:** Iñaki Otamendi. **Banaketa arduraduna:** Iñosken Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legedordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614  
**Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## BEHIAK EROTU?



JON UNANUE

**E**gia esan, ez zait batere harritzen, Carlos eta Dianaren arteko gora beherak azken ttanta izan dira eta, behi gajoek, erreginarene menpekorik leialenek ezin izan dute azken kolpe hori jasan. Mende asko izan dira mota guztietako aldrebeskeriak ikusten eta sufritzen: mundu erdia gauzak modu batean egitera jartzea nahikoa izan ohi da, tof, britaniarrek bestela egiteko: Erromako eliza banandu eta, iepa!, eurek eliza anglikarra sortu behar; Europak luzera, pisu eta era guztietako neurriak hitzartu eta, ez!, beraiek bereari nola edo hala eutsi behar; Europako automobilak eskuinetik gidatzea nahikoa beraiek, izorrai!, ezkerretik eramateko. Natura orojakileak aukerarik eman balie, umeak egiteko arraultzeak jarriko litzukete... Gehitxo motel!

Eta behiak, jatorri kontinentalekoak denak (euskaldunak zehatzago esanda), ezin izan diote aurre egin hainbeste urtetan gauzak atzekoz aurrera jarri behar horri, eta azkenean gajo horiei burua nahasi egin zaie. Frotuko ez ziren ba abelgorri guztiak!

Bere mendekua, jakina, gaitzaren eragile izan dena pozointzea, akabatzea izan da, urdailean barrena gainera, eta beraiek adina erotu ondoren. To aldrebeskeria!

Behi ingelesen rap dantza ikusita, Portugalek, Alemaniak, Italiak eta Holandak (Frantziak duela 6 urte) abelgorri britainiarren okela inportatzea galerazi dute (batasun europarrak bere mugak bai baititu).

Euskaldunok, baina, ba al dugu kezkatzeko arrazoirik?


Bi bai, behinik behin:

Bata, Espainiako Gobernuaren eta Jaurlearitzako Nekazaritza Sailaren adierazpenak: ez omen dute neurririk hartu hona behi britainiarren okelik ez datorrelako. Kezka gaitzen, bada!

Bia, Erresuma Batuekiko euskaldunok betidanik izan dugun atxekimendua. Donostia erre eta suntsitzera ingelesak ekarri genituen, gero Sabinok ikurriña disceinatzeo Jack Union ospetsuari erreparatu behar izan zion (!) eta orain, besteak beste eta Bilbao-Londres joanetorriez aparte, Ipar Irlandakoa dela-eta bakeratze kontutarako haruntza begira bizi gara... Harreman gutxi al da?

Hori guztiaz jabetzeko Sorabilla aldera itzuli bat egitea bezalakorik ez dago: hango behien begiratuak burua erdi galdua izatearen sintoma guztiak azaltzen dituzte. Eta ez da ba harritzekoa, garai baten aldean, European diren gauzarik zelebreenak (aipatu behar ote dira!) bertan ikus baititzateke, Gipuzkoatik areago begiratu gabe.

Demontre!, Sorabillako behiak euskaldunak ala erdaldu-nak dira? Hala dagoeneko poliglota?



## ETA ZUK, BA AL DAKIZU ALZHEIMER-A ZER DEN?

*Aspaldiko partez sarri entzuten ari garen hitza da alzheimer. Filme bat, diska bat, gaixotasun bat, liburu bat edota asmakizun bat ote den galdetuta, gehientsuenok,*

*gaixotasun bat dela asmatuko genuke. Hala ere, bada oraindik nahasten denik ere. Hara hemen herritarrek alzheimer zer den galdetu, eta erantzun digutena.*



### **Paula Misas, etxekoandrea. Billabona.**

Gutxi entzun dut gaixotasunari buruz, dakidana, telebistan entzundakoa da. Inguruko inork ez du gaixotasun hori. Kezkatzen nauen gaia da, gaitza izateaz gain, laguntza gutxi jasotzen baitute gaixoek. Egun osoan lagunduko dien pertsona bat behar dute alhoan, eta gaur egun, ez dute horrelako laguntzarik erraz ematen.



### **Ane Ormazabal, etxekoandrea. Andoain.**

Alzheimer? Ez dakit, ez. Zer da, gaitzen bat, edo? Aste honetan uste dut horri buruz egunkarian zerbait irakurri dudala.



### **Begoña Gutiérrez, langilea. Andoain.**

Bai, badakit: zaharren gaixotasun bat da. Memoria galtzen hasten dira poliki-poliki, eta azkenerako, ezertarako gauza ez direla gelditzen dira. Ez dut gaixotasuna daukan inor ezagutzen.



### **Patricia Pintado, etxekoandrea. Asteasu.**

Bai, zerbait entzun dut. Duela gutxi, ezagun batek, bere senide batek gaitz hori duela esan zidan. Asko zaindu beharra dago, eta badakit horretarako baliabide gutxi daudela. Gaixotasun hori duten pertsona gehiago ere ezagutzen ditut.



### **Ima Etxezarreta, langabea. Zizurkil.**

Oroimena galtzen dutenek daukaten gaixotasuna al da? Ba, egia esan, gutxi dakit gaixotasun horri buruz. Jendea zoratuta ikusi dut, baina ezagutzen dudan inork ez dauka *alzheimer*. Nere amari kezkatzen dio gaixotasunak, baina nere ustez, eta beharbada, gaixoa gustura bizi da bere munduan.



### **Jaione Arizeta, ikaslea. Larraul.**

Ez, ez dakit. (Alhoan dagoen lagun batek esan dio Goenkaleko Gregoriok duen gaixotasuna dela) A! Burutik jota dauden zaharrek duten gaixotasuna da. Ez dut gaixotasuna duen inor ezagutzen. Ez dut uste nik gaixotasun hori edukiko dudarik, ez nau kezkatzen.

VAC VAC

**HOL - ATZ**



VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN TRATAMENDUA**

**PITZADURA, PIPI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA**

Elbarrena, z/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
ADUNA

**Minkost**

**LIBURUDENDA  
PAPERDENDA**

Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -  
ANDOAIN

# BASERRIAK TXUKUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

**Eskaerak maiatzaren 31a bitartean jasoko dira**

*Heria txukun eta ederra edukitzeko, Udalak dirulaguntzak emango dizkie baserritarrei. Aurten hasi eta hiru urte barru arte emango dituzte dirulaguntzak, urtero, diru kopuru zehatz bat emango dutelarik. Aurten, 150.000 pezeta jasoko du laguntza eskatzen duen familia bakoitzak.*

Hiru urtetan zehar banatuko ditu Udalak dirulaguntzak, baserritarrek ordurako, baserri guztiak txukunduko dituztelakoan. Oraindik ez dakite hurrengo urtean zenbateko dirulaguntzak emango dizkieten eskatzaileei, baina hasteko, 150.000 pezeta banatuko die bakoitzari. Etxe batean bi familia bizi badira, familia bakoitzak bere dirulaguntza jasoko du.

baina etxearen zati guztiak modu berean txukundu, margotu eta hornitu beharko dituzte.

Maiatzean, dirulaguntzaren %75a emango zaie, eta behin lana bukatu ondoren, %25a. Lanek abenduaren 31rako bukatuta egon behar dute.

## **Apirilaren 14ean bilera udaletxean**

Honetaz guztiaz informatzeko, datorren hilaren hamalauan bilera izango da udaletxean eguerdiko hamabietan, eta bilerara ahalik eta herritar gehien joatea nahi dute udal ordezkariak.

Txukunketak egiterakoan, kontuan eduki beharko dira baserriaren egitura zaharra, baserriaren tradizioa, eta gainera, lorak eta landareak jarri beharko dira. Baserri politenari, 100.000 pezetako saria emango zaio urte bukaeran. Hiru teknikariz osaturiko epaimahaiak erabakiko du irabazlea. Turismoa erakarri nahi dute era horretan udal ordezkariak herrira.

## HERRIKO GIMNASTAK

**Astean hiru aldiz egiten dute gimnasia**

*Hamar emakume inguru elkartzen dira iluntzetan gimnasia egiteko. Adin ezberdinetakoak dira, eta Paula López urnietarra dute irakasle. Gorputza zaintzeko eta gehienbat, ondo pasatzeko egiten dute gimnasia nahiz aerobic-a. Udaletxe azpiko aretoan biltzen dira musika eta guzti.*



*Klase guztietara joaten dira*

Azaroan hasi ziren eta orduan, astean egun bakar batean egiten zuten gimnasia saioa. Baina berehala eskatu zuten astean hiru aldiz egitea, eta ekainera arte modu berean jarraituko dute. Udalak kostuaren erdia ordaintzen du, eta beste erdia partaideen artean ordaintzen dute.

### **Material alternatiboa**

Aretoa ez da gimnasioa, eta behar den materiala erosteko ez dago dirurik. Irakasleak ekartzen ditu material batzuk baina ez dira nahikoak. Hala ere, aretoa haurrek jolaserako erabiltzen dituzten baloiez eta uztaietz beteta dago, eta horiek erabiltzen dituzte gimnasia egiteko. Horrezaz gain, etxetik ekarritako pote eta beste tresna batzuetaz baliatzen dira.

## KARRIKAKO BIZILAGUNAK HASERRE

### Udala gestioak egiten ari da

*Orain dela bospasei urte hasi ziren Karrikako bizilagunak auzoa zeharkatzen duen errepidean trafikoa kontrolatzeko semaforoak jartzeko eskatzen. Beti kexatu izan dira Udalak arazoarekiko agertu duen axolagabekeria, eta egun hauetan hainbat ekintza egiten ari dira, beren eskaria entzun dadin. Gaur egun, arazoari irtenbideren bat emateko gestioak egiten ari dela adierazi digu Udalak.*

**K**arrikako auzo elkarteko kideen esanetan, azaroan elkartu ziren udal ordezkariekin, eta adierazi zientenez, urtarrilerako erantzunen bat izango zuten. "Martxoan ia igaro da, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso", adierazi digu elkartekide batek. Hori dela eta, aste hauetan hainbat protesta ekintza egiten ari dira: horma bat margotu dute, pankartak zabaldu dituzte, "Tragico tráfico" dioen orri informatiboa banatu dute, eta Aste Santua ondoren kotxe karabana bat egin nahi dute. Aipaturiko orrian 1984 urteaz geroztik, errepidean egon diren istripuen berri ematen da: hogeita bost guztira, hildako eta guzti.



### Udala

Udaleko zerbitzu batzordeburu den Maxen Zinkunegik adierazi digu, Udala gestioak egiten ari dela, baina ezer egiten hasi aurretik kontuan hartzeko hainbat gai badaudela: "Gaia borrenbeste atzeratu bada, orain dela hilabete batzuk arte arau subsidiarioak onartu ez direlako izan da". Bestalde, arauen arabera urte gutxi barru, auzoa asko aldatuko da, hau da hiru errotonda jarriko dituzte, eta era horretan, modu batean edo bestean trafikoa kontrolatu egingo da. Hori dela eta, Udalaren kezka hau da: "Orain semaforoak jarriz inbertsioa bandia egingo dugu, eta hementik urte gutxi batzuetara, errotondak egindakoa, alferrikako gastua izan daiteke".

Hori dela eta, beste irtenbide bat aztertzen ari dira: koxteen abiadura kontrolatzeko soinu bandak jartzeko, alegia. Dena dela, Udalak aurrekontuetan arazoa konpontze bidean jartzeko dirukopurua dagoeneko aurrikusita daukala adierazi digu, hala ere, beste erakunde batzuetan ate joka dabilta, beste diru iturriren batzuen bila.

## UDAL BATZARRALDIA BESTE BEHIN ITXITA

### Senideak-en mozioa onartu zen

*Gai zerrenda luzea izan arren, jendaurreko udal batzarraldian gai bakarra eztabaidatu zen. Handik aurrera HBko zinegotziak eta Senideko kideak udal aretoan sartu, "PSOE-PNV kartzelero" zioen aurreko batzarraldietako pankarta atera, eta alkateak udal batzarraldia bertan behera uztea erabaki zuen. Aipatzekoa da batzarraldia hasteko garaian udaltzainak udaletxeko ataria zaintzen ari zirela. Aretoan inolako pankartarik sar ez zedin agindua emanda zeukan alkateak.*

EAJ-PNV, EA eta IU-EBren botoen onespenerekin onartu zen Jose Mari Urdanpilleta preso andoainarra Martuteneko espetxera ekartzea eskatzen zuen Senideak-en mozioa. HBko kideak aretoan sartu gabe zeuden artean. PSE-EEk ez zuen bozketan parte hartu, aurreko batzarraldian EAJ-PNVk aurkeztutako mozioan euskal preso guztien gerturatzea eskatzen zuen mozioa onartutzat jotzen zutelako. PPko alderdikidea abstenitu egin zen, bere esanetan, mozioan aurkezten zen egoerak ez zeukalako ETako preso taldearen aldarrikapenekin zerikusirik, eta gaia eztabaidatzeko beste erakunde egokiago batzuk bazeudela adierazi zuen.

### Pankarta

Senideak erakundeko kideak pankarta zabaldu, eta alkateak, HBko J.J. Petrikonerani Senideak-eko kideek pankarta ken zezaten eskatzeko esan zion. Pankarta kentzeko inork eskubiderik ez zuela adierazi zuen Petrikorenak, eta horrela eginez gero, alkatea irregulartasunez jokutzen ari zela. Bozeramaile batzordean HBko kideekin pankartaren auzia konpontzeko negoziatzen saiatu zirela adierazi zuen alkateak, baina HBk ez zuela jarreraz aldatzen. Petrikorenak negoziatorik ez zela egon salatu zuen: "Pankarta zabaldu eta batzarraldia bertan behera utzi behar izanez gero, erantzukizuna HBrena izango zela baino ez zidan esan".

Alkateak batzarraldia bertan behera utzi eta ateak itxita egitea erabaki zuen. EA eta IU-EBko kideek beste behin ez zuten batzarraldi itxian parte hartu. HBk beste behin adierazi du, alkatea auzitara eramango duela. Senideak-eko kideek, mozioa onartu arren, pankarta zabaltzen jarraituko dutela adierazi dute, "presoen egoera konpontze bidean jartzeko benetako borondatea erakutsi arte".

## MUSIKA GARAIKIDEA KALEETAN

### Apirilak 13 eta 20ean

Folk, rock, jazz edota bestelako musika garaikidea egiten duten taldeei zuzenduriko deialdia:

Deialdian parte hartzeko taldeak lau partaide edo gehiago izango ditu. Partaideen gutxieneko adina 16 urtekoa izango da. Eskainiko den programak gutxienez 12 pieza izango ditu. Piezak herriko kale eta enparantzetan joko dira apirilaren 13an eta 20ean. Talde bakoitzari 20.000 pezeta emango dio Udalak. Eskaera orria Kultur Etxean jaso eta beteta aurkeztuko da martxoaren 25etik 29ra.

# ASKAGINTZAK BI PROPOSAMEN ZEHATZ EGIN DITU

## Gaztetxoak eta ijitoak drogomenpekotasun prebentzio programen ardatzak

**Andoaingo droga kontsumoaren azterketa zehatzak eraman du Askagintza bi proposamen zehatz egitera: lehenengoa herri osoari zuzenduta dago, baina gazte-  
txoengan du eraginik handiena; bigarrenak Andoainen bizi den ijito herria izango luke helburu. Askagintzak alderdi politiko guztiei ezezik, Udalari ere eman dizkio ezagutzera bi proposamenak.**

**G**aztetxoak helburu dituen programak hiru euskarri nagusi ditu: familia, eskola eta kalea. Askagintzak hiru arloak batera jorratzeko proposamena egin du. Eskolari dagokionez, erreforma teknikoak ezezik, baloreen erreforma ere landu beharko litzatekeela uste du Askagintzak. Haur eta gazteen sozializazio gunerik garrantzitsuena oraindik ere familiak izaten jarraitzen duenez, gurasoek drogomenpekotasuna saihesteko seme-alabekiko giza balore positiboak lantzea proposatzen du.

Kaleak ere berebiziko garrantzia du gaztearen heziketan: *"Guraso askok beren seme-alabak kaleko bainbat girotan ez lituzkete ikusi nahi, eta borretarako beste giro eta gune batzuk sortu behar dira, eta lan horretan helduek ere parte hartu behar dute"*, diote Askagintzako kideek. Esparru horiek guztiak lotzeko Udalak koordinazio lana egi-tea proposatzen du Askagintzak.

### **Ijitoei begira**

Ijitoei zuzendutako proposamenak badu alde zuzeneko hausnarketarik: orain dela urte t'erditik hona

herrian dagoen ijito kopurua bikoiztu egin da, eta erakundeek bideratutako politika asistentzialaren ondorioz, Askagintzaren ustez, ijito herriko hainbat eta hainbat kide erabateko marjinazioan erortzeko arriskuan daude, horrek drogen kontsumoa eta "trapitxeo" arriskua areagotu egiten dituelarik.

Gaur egun Udalak eginiko sailkapenaren arabera, bost familia mota bizi dira herrian: aspaldi etorri eta gainerako bizilagunen artean baketsu bizi direnak; Udalak bideratutako programa jakin baten arabera, etxebizitza bat eta dirulagun-

tza bereziak jasotzen dituen familia bat; azpiekonomiaren baitan drogarren "trapitxeoari" esker bizi diren hainbat ijito; Karitas erakundearen bitartez herrira etorritako lauzpabost familia; eta azkenik, azken bolada honetan ugaritu diren tramontanoak edo ijito portugaldarrak.


Askagintzaren ustez, erakundeek ez dute egoki jokatu ijito familiak beren programen arabera bereiztuz. Ijito herriak nortasun propioa izanik, elkarre bat sortzea izan daiteke, Askagintzaren ustez, familia guztien elkarlotura jendaurrean bultzatzeko modua.

Elkartearen bidez herri ijito osoak bereganatu beharko luke drogomenpekotasuna saihesteko programa zehatza, eta onartu ondoren, gauzapena beren eskuetan utzi beharko litzateke, hein handian. Gainerakoan, kanpotik zuzendutako ekimenen porrota aurrikitzen da.



*Askagintzako kideak*

ILEAPAINDEGIA  
**GARBIÑE**  
Bilandegei kalea 13 - 3<sup>o</sup>D  
Tel. 69 05 99 ZIZURKIL

  
**JOSEBA**  
Altzariak  
Kaletxiki, 6 Fax - Telf. 59 07 61  
ANDOAIN

**S T O P**  
**LIBURUDENDA**  
TESTU LIBURUAK  
AUKERA ZABALA LIBURUTAN  
(Ingelesezt, frantsesezt,  
italieraz...)  
Agustin Leitza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03

## POLITIKA PLAZARA: JOSEBA ARREGI

**“Abertzelatasun demokratikorako oinarriak eta estrategiak”**

EAJk antolatutako “Politika Plazara” hitzaldi egitarauari jarraituz, Joseba Arregi andoaindarra izan da herrian “abertzelatasun demokratikorako oinarriak eta estrategiak” izenburupean hitzaldia eskaintzen. Joseba Arregi Kultura kontseilari, GBBko lehendakari eta Jaurlaritzako bozeramaile izan da, eta gaur egun legebiltzarkide da. Horrezaz gain, Garbiñe Egibar jeltzaleak aurkezpenean Joseba irakasle, pentsalari eta kultura gizon gisa aurkeztu zuen. Txaro Arteaga, Kepa Aulestia, J.M. Ollora, Xabier Albistur eta Joseba Arregi izan dira orain arteko gonbidatuak. Apirilaren 26ean Francisco Letamendia “Ortzi” izango da autodeterminazio eskubideari buruz hitz egiten.



Garbiñe Egibar eta Joseba Arregi

Joseba Arregik, lehenengo eta behin, abertzelatasun demokratikoaren estrategia finkatzeko, egoeraren analisia egin zuen, eta honako puntu hauek hartu zituen kontuan: euskal gizarteak dagoeneko daukan nolabaiteko autogobernu maila, eta ondorioz, nazionalistek gobernuan daukaten erantzukizuna; europear batasun prozesua; kulturaren ezinbesetko globalizazioa; eta terrorismoaren existentzia.

Bestalde, euskal gizartea, hizkuntza, kultura eta ohitura anizdun gizartea dela, izan zen Arregiren hausnarketaren abiapuntua, eta euskal gizarte anitzaren eraketa helburutzat hartuz, alde guztien arteko egitura juridikoan oinarrituta lan egin behar dela uste du: Gernikako Autonomi Estatutuan, hain zuzen ere.

### Autodeterminazioa

Autodeterminazio eskubidea ukaezina dela adierazi zuen, baina eskubidea norengan gauzatu behar den galdera egitean, euskal gizartearen eraketa, azpimarratu zuen behin eta berriro. Gaur egun autodeterminazio eskubidea gauzatea, euskal gizartearen alde bat besteari inposatzea izango litzatekeela adierazi zuen.

Nazionalismoaren beraren bizi iraupenerako, ideologia nazionalistak, garaiak eskatu bezala, eraldatu behar duela adierazi zuen, eta euskal nazionalismoaren etorkizuna, euskal gizarte anitzaren gauzapenean dagoela.

Azkenik, nazionalismo demokratikoa ez-demokratikotik argi bereiztu behar direla adierazi zuen: “Nazionalismoak, berez, bi etsai nagusi dauzka egun hauetan: terrorismo eta totalitarismo kontzeptuala”.

ESKU LANAK

# PUNTUZ PUNTU

Puntu - Kruzean  
espezializatutako denda

- Hariak • Ehunak
- Grafikoak • Kit-ak
- Petit-point
- Gantxiloa

Zumalakarregi, 7  
TOLOSA  
☎ 65 28 81

KIROL JANTZIAK

# Litawna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎ 59 44 47

## ANDOAIN

MAIA  
GIRRE  
ZPIAZU

MEDIKU  
OSTEOPATA

- LUNBALGIAK • ARTROSIK
- GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02  
20140 ANDOAIN



GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA  
GIRO EDERRA

Kale Nagusia, 20 - ANDOAIN



# HILETAKO GASTUAK ORDAINTZEKO HERMANDADEA

**Laurogeita sei familiek ordaintzen dute kuota hilero**

*Gaur egun, beste gauza askoren antzera, hiltzea ere garesti da. Hil-kutxa, garrailoa eta hilerriko lanak ordaintzea dirua kostatzen da, eta gainera, berehala ordaindu behar da guztia. Hermandadea, gastu horiek familientzat arazoa ez izateko osatu zen. Bertako kideek, diru kopuru bat jaritzen dute hilero, eta horrekin ordaintzen dira hermandadeko bakoitzaren hileta gastuak.*



*Lorenzo Usandizaga eta Migel Mari Izagirre*

**B**errogei urte inguru igaro dira hermandadea sortu zenetik. Iaz orde, elkarteko ardura zutenek utzi egin zuten, eta hermandadeko lagunek bilera ugari egin zituzten elkartearekin aurrera jarraitu ala ez erabakitzeko. Azkenean, elkarteak ez desegitea erabaki zuten.

Bertako kideak diren Migel Mari Izagirrekin eta Lorenzo Usandizagarekin aritu gara solasean, eta esan digutenez, hermandadeko kide diren 86 familiek kuota bat ordaintzen dute hilero. Baina familia bakoitzak kuota kopuru jakin bat ordaindu beharrean, lau senideko mila pezeta ordaintzen dute. Lau senide baino gehiago izanez gero, bi mila pezetara igotzen da kuota. Hasieran, hermandadean izena emateko, hamar mila pezeta jarri behar dira. Diru horrekin, hil-kutxa, garrailoa, sinadurak biltzeko mahaia eta udal gastuak ordaintzen dira besteak beste. *"lorak, eskelak eta antzeko kontuak familiak ordaintzen ditu"*. Edonor izan daiteke hermandadeko kide, baina *"bilzorian daudenak hermandadera sartzea eztabaidatu beharreko gaia da"* adierazi digute.

## **Aseguro etxeak: garestiegiak**

*"Zabarrei aseguro etxeek asegurorik egiten ez diete-lako jarraitu dugu hermandadearekin. Gainera, garesti-agoak dira"* esan digute hermandadekoek. Hala ere, hasieran, kideak lortuko ote zituzten kezka izan zutela adierazi digute: *"Oso gustourra gaude jendeak konfidantza izan duelako"*. Urtean hiruzpalau aldiz biltzen dira kide guztiak diru kontuen berri emateko, eta beste zenbait gauza zehazteko. Orain Udalarari egingo dioten eskaera, hilerrian egiten dituen lanak ez ordaintzea izango da, *"berriko beste lan guztiak bezala"*.

## **Oharra**

Aiurriren 32. alean, "Hamabi etxebizitza berri datorren urterako" izenburua zuen artikuluan, Ibarrazpi baserriaren inguruan eraiki nahi dituzten babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lanak hemendik hamar bat urtetara hasiko zirela genion. Lan guztiak amaitzerako zenbat urte pasako diren ez badakite ere, lanak egiten hemendik bi urtera hasiko direla aurreratu digute udal ordezkariak.



**ELEKTRATRESNAK  
SUKALDERAKO ALTZARIAK**



Arteta kalea. 1 eta 3  
☎ 59 12 26 - Faxa 30 03 45  
**ANDOAIN**

*Ageltseritza*  
**USABIAGA**

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa  
Tel. 69 35 60 - 69 34 35  
**20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)**

## KOTXE ISTRIPUA GARTZELARA BIDEAN

**Gervasio Agirreren emazteak eta bi lagunak izan zuten istripua**

*Asturiaseko Villabonako gartzelan dagoen Agirre preso bisitatza zihozten kotxez. Torrelavega inguruan, errepidean kotxe batek kontrola galdu eta aurretik zuten kotxea, bat-batean gelditu egin zen. Ondorioz, kotxea jo eta kolpeak zerbikaletako esgintzeak eragin dizkie, besteak beste. Istripua, presoak bisitatzeko egin behar dituzten bidaia luzeen ondorioa dela esan zuten zaurituek.*



*Emazteak ditu zauri larrienak*

**P**rentsaurrean azaldu zuten Ixabel Alkortak, Gervasioaren emazteak, Iratxe Bidaolak eta Olatz Otaegik, istripuaren nondik-norakoak. Ramon Gaztelumendi Senideak-en bozeramalearen esanetan, istripua, aurtengo bosgarrena da, eta presoan sakabanaketa hasi zenetik hogeita hamazazpi istripu gertatu direla aipatu zuen, bi hildako eta zauritu ugari eraginez. Senideek bidaia luzeak, neketsuak eta funtzionarioen jarrerak jasan behar dituztela aipatu zuen, eta presoak Euskal Herrian biltzeko duten eskubidea aldarrikatu zuen. Hilaren 30ean Gasteizen egingo den manifestaziorako deialdia egin zuen, bide batez.

### **Presoari ez zioten ezer esan**

Zarituak ospitalera eramane zituzten istripuaren ondoren, eta berta-

tik deitu zuten gartzelara gertaeraren berri emateko. Agirreri ordea, ez zioten funtzionarioek berria eman. *"Astero joaten gara Gerva bisita-tzera eta beti dago beste istripu bat gertatzeko arriskua"*.

*"Dispertsioa politikoki gaindituta badago ere, giza kalte larriak eragiten ditu"*, adierazi zuen Billabonako Amnistiaren Aldeko Batzordeko kidea den Esti Amenabarrek. Presoak Euskal Herrian biltzeko duten eskubidea gogoratu zuen, eta Billabonako Udalak eskubide hori onartzen zuen mozioari baietza eman eta arazoa konpontzeko ezer ez duela egin salatu zuen.


### **Kalteak ordaintzeko ekintzak**

Istripuaren ondorioz, kotxerik gabe gelditu dira zaurituak. Beste bat erosteko, dirua biltzeko kontu korrante bat ireki dute Euskadiko

Kutxan: 46.0.02955.3a da zenbakia. Maiatzean afari herrikoia egingo dute, eta Udalean berriz, mila sinaduraz sinatutako mozioa aurkeztuko dute.

### **Presoak Euskal Herrian biltzeko ekimenak**

**M**artxoaren 27an bukatu zuten presoek urtarrean hasitako txandakako gose greba. Euskal Herrian biltzea lortu arte presoak borrokan jarraituko dutela adierazi digu Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Era berean, herritarrek parte hartzeko ekimen ugari antolatu dituzte AABko partaideek; hala nola, konzentrazioak antolatu dituzte martxoaren 29rako eta apirilaren 1erako: arratsaldeko zortzietan emango zaie hasiera Hiru Aldetatik.



**kutxa fundazioa**  
**fundación kutxa**

- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

# AURRERA TABERNA

**Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
ZIZURKIL**

# EKINTZA UGARI HIRUGARREN ADINEKOENTZAT

**Sarea Berri enpresa ari da azterketak egiten**

*Hirugarren adina, hirurogei-hirurogei-ta bost urtez gorako jendeak osatzen du. Billabonako bizilagunen %17a osatzen dute talde hori, eta kopurua urtez urte handitzen ari da. Beraien aisia eta denbora librea betetzeko, Sarea Berri enpresa ari da lanean.*



*Sarea-berri eta ongizate batzordeko kideak*

**O**ngizate batzordeko kideek prentsaurrean azaldu zuten bezala, hirugarren adinekoen aisia betetzeko ekimenak burutu nahi dituzte. Neurri horrekin, hirugarren adinekoek jubilatuen etxea, erresidentzia eta beste baliabide batzuk izateaz gain, denbora librean elkarrekin gauzak egiteko aukera dute. Lan hori egiteko, Sarea Berri enpresak proposamen bat aurkeztu zuen, baina jende edaletuari egiten ari diren inkestaren erantzunak aztertu arte, ez dute inolako egitasmorik martxan jarriko.

**Sei hilabeteko frog**

Ongizate batzordearen nahia, hirugarren adineko jendearekin lanean jarraitzea da. Horretarako, mi-

loi terdi pezetako dirulaguntza jaso zuten Diputazioetik eta beste milioia jasotzeko aukera du Udaltetik. Hala ere, diru gehiago behar du, eta Diputazioari eskatzea pentsatzen dute. Behin inkestak amaitu ondoren, eta egitasmoa martxan jarri eta sei hilabetetara, balorazioa egingo dute.

## MENDI IRTEERAK GAZTETXOENTZAT

**Laurogeita hamar lagunek eman dute izena**

*Aizkardi mendi elkarte* eta *Billabonako kirol eskola hilean behin mendi irteerak antolatzen hasi dira. Zortzitik hamalau urte bitarteko haurrentzako irteerak izango dira, eta ia ehun lagunek eman dute dagoeneko izena. Ez dute pezetarik ordaindu beharko, aseguruak Diputazioak ordainduko baititu eta Udalaren laguntza ere jasoko dute. Igandetan egingo dira irteera guztiak.*



**L**ehenengo irteera martxoaren 24ean egin zuten, eta txikiak Belkoain mendira joan ziren bitartean, handienak Loatzora igo ziren. Bitan banatu behar izan dute taldea, 90 haurrekin batera ibiltzea ezinezkoa baita. Udako hiru hilabeteak izan ezik, beste hilabete guztietan inguruko mendiren batera igoko dira: Belkoain, Loatzo, Uzturre, Buruntza, Zarateaitz, Adarra eta Ernio, hain zuzen ere. Hurrengo urtean, beharbada, urrutia-goko mendietara joango dira. Aizkardi mendi elkarteko zortzi lagunek egingo dituzte begirale lanak, eta esan digutenez, ia ez saiatu ziren hama-

hiru urte inguruko gaztetxoei zuzendutako irteerak antolatzen, baina ez zuten arrakastarik izan.

**Elkarlaguntza indartuz**

Kirolean dagoen norgehiagokeria alde batera utzi eta elkarlaguntza bultzatu nahi dute Aizkardikoek irteera hauen bitartez. Horrekin batera, ingurunea ezagutzea eta ondo pasatzea da helburua. Mendi irteeretan argazkiak aterako dituzte, eta uda aldera edo, diapositiba emanaldia eskainiko dute. Asmo asko dituzte Aizkardiko lagunek, eta orain Parkeko eskoletan emango dieten lokalean, ekintza ugari antolatuko dituztela aurreratu digute.

**EUROPEAN SCHOOL**

**HIZKUNTZ AKADEMIA**

- ✓ JATORRIZKO IRAKASLEGO TITULUDUNA
- ✓ INTERPRETATITZA ETA ITZULPEN ZERBITZUAK
- ✓ IKASTAROAK URTE OSOAN - "STEP UP" PROGRAMA, ESKOLARAKO LAGUNTZA - ENPRESETARAKO IKASTARO BEREZIAK
- ✓ AZTERKETA OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA
- ✓ CAMBRIDGE, ALLIANCE FRANÇAISE TITULUTARAKO AZTERKETAK
- ✓ TALDE MUGATUAK

**INGELESA - FRANTZESA**

Kale Berria, 10 Tel. - Fax. 69 39 76  
**BILLABONA**

# GAZTETXEA: NOIZKO ETA NON?

### Udalak pabilioi bat erabiltzeko proposamena egin zien

**Hilaren zortzian Lizarain lantegia okupatu zuten berrogeita hamar gaztek. Asteburu osoa igaro zuten bertan, eta astelehenean udal batzarrera joan ziren. Bertan Udalak lokalik eman ez dielako okupatu zutela Lizarain adierazi zuten gazteek. Udalak berriz, jabetza pribatu bat okupatu zutela eta ezin**

**zituela babestu adierazi zien. Azkenean, HBko Xabier Pellejero zinegotziak, Asteasu bidean dagoen pabilioi bat hutsik dagoela eta hura erabil dezaketela adierazi zuen. Gazteen esku dago erabakia: jabetza pribatuko lokala ala Udalak denboraldi baterako utzi dien lokala gaztetxe bihurtzea, alegia.**

**K**ostata gazte asanblada aspal-ditik ari da gaztetxe eske. Udalak, hutsik zeuden lokalen azterketa egingo zuela adierazi zien aurreko legealdian. Geltoki ondoan dagoen Renfeko lokala eta beste zenbait lokalei buruz informatu ziren: errenta garestiak ordaindu edota lokalak erosi behar zirela esan digute Udal ordezkariak. Aurtengo legealdian, Karitate etxeko lokalaren aukera aztertu zuten udal batzarrean, eta azkenean, gazteei lokala ez uztea erabaki zuten. Gauzak horrela, gazteek Lizarain lantegia okupatu zuten: *"Udaletxearen pasibitatea ikusirik eta gure beharrak egunetik egunera handiagoak direnez okupazioa dugun behuru, hau baita gelditzen zaigun bide bakarra"* diote gazteek. Esan eta egin, asteburu batez Lizarain lantegia gaztetxe bihurtu zen.

### Gauza asko erabakitzeke

Orain, udal batzarrean egin zitzaizen proposamena aztertzen ari dira

gazteak, eta pabilioia nolakoa den ikusi behar dute. Hala ere, argi utzi digute gaztetxerik gabe ez direla geldituko. Bestalde, Udalak behar izandakoan, gazteek, proposatutako lokaletik joan egin beharko dutela adierazi du Udalak, eta bienbitartean, gazteentzako lokal bila arituko direla.

Dena den, oraindik gauzak zehazteko daude eta gaiari buruz lasaia go hitz egin behar dutela azaldu digute Udal ordezkariak: *"Gu eta gazteen artean hitz egiteko eta zebazteko gauza ugari daude"*. Bestalde, herritar batzuk gaztetxearen aurka azaldu direla esan digute udaletxean.



Lizarain lantegia gaztetxe bihurtuta

**JOSE ANTONIO URBIETA**  
**GARRAIOAK**

**URTE OSOAN**  
**SU EGURRA**

BELARRA ETA LASTOA BERE GARAIAN

Lege Zaharren Enparantza, 4 -2  
ASTEASU (Gipuzkoa)  
☎ 69 26 76 - 69 30 92

**ZABALA**  
**SAGARDOTEGIA**

ADUNA (GIPUZKOA)  
☎ 69 07 74

- Egunero iluntzean zabalik igandeak barne
- Igande eguerditan enkarguz
- Maiatzarte zabalik

**BASAIAZ**

LIBURUDENDA

- TESTU LIBURUAK (O.H.O. - B.B.B. - L.H.)
- ESKOLARAKO OSAGARRIAK
- JOKO DIDAKTIKOAK
- IRAKURKETARAKO LIBURUAK
- ALDIZKARIAK
- PAPERDENDA

**IRAKURKETARAKO**  
**LIBURUAKAK**  
**ZURE HERRIAN**

**BILLABONA**

Kale Nagusia, 29 ☎ 69 16 51

# ORDEZKATZE ZERBITZUA

## Baserritarrek oporrak har ditzaten

**Hamabost opor egun ordainduta izateko eskubidea daukate gaur egun baserritarrek. Opor egun horietan nekazaritzatik bizi diren baserritarrei etxekolanak egiteko ordezkatzeko zerbitzua eskaintzen duten bi kooperatiba daude gaur egun Gipuzkoan: ENHE sindikatuko EHNE-LUR eta Zurgintza kooperatibak, ordezkatzeko zerbitzua eskaintzeko langile bana dutelarik. Zerbitzua gero eta gehiago ari da zabaltzen, baserritar gazteen artean, batez ere.**

Orain arte, eta gaur egun oraindik ere, ez dira asko oporrak hartzen dituzten baserritarrek, nahiz eta feria egunak edota egun seinalatu batzuetan, ohihurtu den legez, beti jai hartu. Ez dira ordea, urtean zehar egun asko izaten. Beti egokitutako ohi da hala ere, edozein eratako ezintasunen bat. Baserritarra etxekoekin edota kaleko senideekin moldatu ohi da orduan normalean. Baina batzuetan laguntza hori ere ezinezkoa izaten da, eta horrelakoetan aipaturiko bi kooperatibek eskaintzen duten ordezkatzeko zerbitzura jo dezakete.

Orain arte gazteen artean zabaltzen da batez ere zerbitzua, baina bestalde, baserri askotan edadeko jendea bakarrik geratzen ari da, esku-lan gazterik gabe, eta horrelakoetan ere ordezkatzeko zerbitzuak aukera ezin hobea eskaintzen du.

**“Langilearekin batera beti geratzen da etxekoren bat”**

Hamabost opor egun ordainduta izateko, eta gaixotuz gero, beste zaz-

pi egun izateko eskubidea du baserritarrek. Ordezkatzeko zerbitzuaz baliatzen direnak, opor egunak abuztu eta irail aldean hartu ohi dituzte. Gutxi hartzen dituzte, alabaina hamabost jai egun jarraian, eta baserritarrek are gutxiagotan uzten du baserria hutsik;

kanpoko langilea hartu badu ere, beti uzten du etxean etxeko lana eta ohihurtuak erakutsiko dion baten bat. Langileak gutxiengo lanak egiten ditu baserrian, mantentzen dituzte lanak. Egun osoa igarotzen du bertan, eta gauen etxera itzultzen da.

### Nahikoa merke

EHNEko kidea den Xabier Goikoetxea billabonatarrek adierazi digunez, hasiera batean bailara gutxitan langileren bat izatea egoki litzatekeela pentsatu zuten. Baina Diputazioak langilearen iharduera arautu beharra zegoela adierazi zien, hau da kooperatibak berak kontratatu behar zuela langilea, eta diru arazoak direla eta, hasierako asmoa ezinezko bihurtu zen.

Gaur egun urtebeteko kontratua duen langile bat

dauka ENHE-LUR kooperatibak. Diputazioak zerbitzuaren %70a finantzatzen du, kooperatibak %10a, eta baserritarrek berriz, %20a, hau da hasieran eguneko 2.000 pezeta ordaintzen zuten, 2.500 ondoren, eta 3.000 pezeta gaur egun.

Gipuzkoan ordezkatzeko zerbitzua Tolosaldean, Urola Kostan eta Goierri ezagutzen da, batez ere. Hala ere, kooperatiba beste eskualde batzuetara iristeko ahaleginak egiten ari da EHNE. Baserritarren batek ordezkatzeko zerbitzua ezagutu edota kontratatu nahiko balu, hona hemen Tolosan egoitza daukan EHNE sindikatuko kooperatibaren telefonoa: 69 35 90.



**Edadeko jendea lan guztiak egin ezinda gelditzen da askotan**

**TAXI ZIZURKIL**

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

*Pello Ezeiza*

**Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00**

**PATXINE JATETXEA**

GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXEKO POSTREAK Errementari,1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

# ALZHEIMER; ZER DA?

**Gipuzkoan 5.000 gaixo inguru daude**

*Alzheimer gaixotasuna azken urteotan gure gizartean oihartzun handia izaten ari da, gaixoen kopurua areagotzen ari baita. Alzheimerra bizi esperantzaren luzapenarekin, gero eta gehiago nabarmentzen ari den dementzia da, eta Euskal Herria bizi esperantza luzeena dagoen herrialdeen artean dago. Gaixotasuna, sarritan, hirurogeita bost urte inguruan sortzen da. Oro har, ahalmen intelektualen eta ondorioz, fisikoen etengabeko galera eragiten du gaitzak. Sendabiderik gabekoa da, eta zaharzaroko dementzien artean zabalduena bera da. Laugarren heriotz arrazoia da gaur egun munduan.*



*65 urtetik gorakoekin artean*

1991. urtean sortu zen AFAGI elkarteak (Gipuzkoako Alzheimer Gaixoen Senitartekoen Elkarte) proposatuta, Donostian Lan Gizarte ikasketak egiten ari diren ikasleek *alzheimer* gaixotasuna gizarteratzeko eta jendea sentibilizatzeko lan handia egin dute hilabete luzeetan. Eta hain zuzen ere, ikerketa taldearen partaide izan den Agurtzane Aramendi andoaindarrarengana jo dugu *alzheimer* izeneko gaixotasuna zer den jakin asmoz.

*Alzheimerra* ez da bat-bateko gaixotasuna, horregatik edadeko jendearen artean zaila da garatzen noiz hasi den antzematea. Hala ere, gaixotasunaren iraupena ezagutzen da: zazpi eta hamar urte bitartekoa da. Denbora tarte horretan honako fase hauek izaten ditu: lehenengo gaixoak memoria hutsuneak izaten ditu, espazio eta denbora oharmenean arazoak, gauzak egiteko tre-

betasuna eta hizketarako hiztegia galtzen du, eta gaixoak pertsonalitate aldaketak izaten ditu. Fase honetan gaixoak senitartekoen laguntzarekin bizimodu independentea egin dezake. Bigarren fasean buru ahalmena asko murrizten da, eta gorputzaren mugikortasuna ere gutxitu egiten da: esaldi gutxi esan ditzake segidan eta kalean galdu egiten da. Aluzinazioak, ilusioak izan ditzake gaixoak. Azken fasean garuna erabat ahitzea da, eta heriotza gertu da: gaixoak ez du inor ezagutzen, ez da hitz egiteko gauza, bizi-tza begetala darama eta gorputzak fetu itxura hartzen du.

***Ez da  
gaixotasunaren  
jatorria ezagutzen***

*Alzheimerra* nerbio sistema zentralaren gaitza da, dementzia mota bat, alegia. Gaur egun oraindik ez da gaixotasunaren jatorria edota eragiten duten arrazoiak ezagutzen. Sendabidea ziurtatuko duen tratamendurik ez dago; familiak eskaini dezakeen maitasuna, laguntza eta segurtasuna izan obi dira tratamendu bakarrak. Hala ere, familian baliabideak nahikoa ez direnean, erakunde zehatz jakin batzuetara jo behar izaten da laguntza bila: Eguneko Egoitzak, Zaharren Egoitzak, eta etxex etxeko laguntza zerbitzua.

### ***Familia***

Edozein gaixotasunak familia batean izaten duen eragina handia bada, are gehiago kasu honetan, izan ere *alzheimer* gaixoei beste pertsona batekiko dependentzia osoa izatera iristen dira. Familian gaixoaren ardurua handiena hartuko

duen pertsona bakarra izan ohi da normalean, eta urte luzeetan bere bizitza soziala erabat murriztuko duela aurikus daiteke, horrek ondorio psikologiko gogorrak izaten dituelarik: tristura, kezka, bakardadea, depresioa, suminkortasuna, lotsa, zapuzketa eta abar. Hain zuzen ere, arazo horregatik sortu zen *alzheimer* gaixoen senideen elkar-  
tea, zama astun hori eramaten ikasi eta ahal den neurrian arintzeko. AFAGI elkartearen helburua gaixoak eta senideak dituzten beharrei ongi erantzungo dien laguntza eta baliabideak lortzea da.

## Familiak psikologikoki asko sufritu ohi du

Normalean, familiari oso zaila egiten zaio senitartekoren baten gaixotasuna onartzea. Esperientziak gaixotasunaren eragin eta prozesuari buruz ahalik eta informazio zabalena izatea komeni dela esaten du gaixoaren bizi kalitatea hobetzeko, eta alde zuzenetik etorkizuneko egoerak aurrikusteko: batzuetan zailtasun ekonomikoak izaten dira, etxeko ohiturak aldatu behar izaten dira, erruduntasun sentimenduak sortzen dira, harreman sozialen gal-  
laren beldur izaten da eta abar.

Gaixotasunak aurrera egiten duen neurrian, gaixoari eskaini be-

harreko laguntza handiagoa da. Horregatik askotan, Eguneko Egoitza edota beste era bateko egoitzetara jo behar izaten da.

### 5.000 gaixo inguru

Gaur egun Gipuzkoak 682.925 biztanle dauzka: horietatik 93.226 (%13,65) 65 urte gorakoak dira. Zaharren egoitzetan 3.053 bizi dira: 2.034 emakumezko eta 1.019 gizonzko. Dementziatuak guztira 797 dira: 627 emakumezko eta 170 gizonzko. %90ak 75 urte baino gehiago du, eta %20a 90 urte gorakoa da. Zaharreen eta dementziatuen artean emakumezkoen kopurua askoz ere handiagoa da: zahar dementziatuen %79a emakumezkoek osatzen dute. Portzentaia altuagoak arazoia bakarra du: emakumezkoa batz besteko, gizonkoa baino luzeago bizi ohi da. Dementziatuen artean %90a ez dago ezkontuta eta bakarrik dago: ezkongabeak edota normalean alargunak-alarguntsak izan ohi dira. Bakarrik dauden

emakume dementziatuen artean %55a alarguntsak dira, eta gizonzkoen artean gehienak ezkongabeak. Oro har, 5.000 *alzheimer* gaixo inguru dago Gipuzkoan.



Agurtzane Aramendi

## II INFORMAZIOA

**AFAGI, Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senitartekoen elkarte**  
Santa Katalina 3. behea. Donostia. Tlf: 42 81 84

### ERNIO BEHEAN

ARGIXKA: Karitasek AFAGIrekin elkarlanean ARGIXKA programa sortu zuen uztailan, *alzheimer* gaixoen senideei laguntza emateko. ARGIXKA programaren bitartez, familiak hilean bi asteburutan atsedenaldia har dezake goizeko hamarreetatik arratsaldeko seirak arte, gaixoa Donostiako Intxaurren kalean dagoen Egungo Egoitzan utziz.

**AIZTONDOKO GIZARTE ZERBITZUA. Tlf: 69 39 30**

**BRONTE**  
ZENTRU  
OPTIKOA

ZURE IKUSMENA  
GRADUATZEN DUGU  
KONTAKTU LENTEAK  
GORRENTZAKO APARAILUAK

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA

---

**BRONTE**  
ORTOPEDIA

NEURRIRA EGINDAKO ORTESIAK,  
PROTESIAK eta PLANTILAK  
TAILERRA BERTAN

**OSAKIDETZAREKIN HITZARMENA**

Kale Berria, 36 - ☎ 69 25 25 - BILLABONA  
RPS. n° 53/96

KIROLETARAKO BEHAR DEN GUZTIA

**KIROLAK  
EDURNE**

Kaletxiki, 6 - ☎ 59 19 58

---

**ANDOAIN**

**ZUBI**  
AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

**Joxe Mari  
ITURRALDE**

ZURGINDECIA

Formika lanak, sarrerako eta barruko ate  
mota guztiak eta edozein zurgintza lan.

**ADUNA - ☎ 69 20 81**

**ESTETIK**

- Gorputzerako tratamenduak "GENETIK" erabiliz
- Materia aktiboekin konposatuak "ZELULOTERAPIA"

Kale Nagusia 49 ANDOAIN ☎ 30 06 69

A  
M  
A  
I  
A

Andoain

## JOSEBA ERKIZIA: EIZIE-KO LEHENDAKARI BERRIA

**“Kultura eleanitzetan itzultzailearen egitekoa garrantzitsua da”**

*Joseba Erkizia 1983. urteaz geroztik Gipuzkoako Foru Aldundiko itzultzailea da, eta duela gutxi Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko lehendakari izendatu dute. Horrezaz gain, EHUn itzulpengintza klaseak ematen aritu da azken urteotan. Itzultzaileen elkarteak elkar-go profesionala izateaz gain, euskararen eta euskal kulturaren normalkuntza bidean ezinbesteko garrantzia eta eragina izan du. Elkartearen iharduera eta asmoak ezagutzearren jo dugu andoaindarrarengana.*



**Ai: Zeintzuk dira elkartearen helburuak?**

**J.E:** Alde batetik, itzultzailearen lana babestea eta sustatzea du helburu, lan baldintzak hobetuz, eta profesionalen bestelako beharrei erantzunez. Bestetik, euskara eta euskal kulturaren normalkuntzan itzulpengintzak duen garrantziaz jabetuta, arlo hori lantzen jarraituko dugu gure lanaren bidez.

**Ai: Itzultzaileak zer garrantzi du gizartean?**

**J.E:** Orain del gutxi arte gure gizartean itzultzaileak ez du izan. Europako beste herrialde batzuekin konparatuz, beharko lukeen garrantzia. Baina azkenengo urteotan urrats handiak eman ditugu aurrerantz. Itzultzaileon elkartea nolabaiteko bideak jartzen ari da, geure lana aintzakotzat bar dadin, eta behar duen babesia izan dezan, gutxieneko tarifak proposatuz, autoren eskubideak zaintzeko gestioak eginez, prestakuntza hobetu dadin bideak jarritz eta abar.

**Ai: Euskal Herrian itzulpengintza, zalantzarik gabe, garrantzitsua da?**

**J.E:** Euskal Herrian, jakina, garrantzitsua da, euskara bizkuntza minorizatu delako. Baina historian zehar Europako bizkuntza zabalduenak ere itzulpenetaz baliatu izan dira, beste kultura batzuen berri izateko. Bestalde, bizkuntza minorizatueta itzulpena ezinbes-

tekoa da, beste kulturen mailan jartzeko. Dena den, gaur egun, Euskal Herrian itzulpenaren garrantzia ez dago bakarrik beste kulturen ekarpenetan; euskal kultura kanporatzen hasiak gara, zer erakutsi badugu, eta borretarako ere itzulpena behar da.

**“Elebitasunak ez du esan nahi dena bi hizkuntzetan argitaratu behar denik”**

**Ai: Beti esan izan da administrazioari bizkuntza, eta baita itzulpenak ere, ilun samarrak direla?**

**J.E:** Historian zehar administrazioan bizkuntza boterea bermatzeko erabili izan da, eta horregatik bertako bizkera, herri bizkeratik urrun egon da. Estatu demokratikoan administrazioaren eta herritarren arteko komunikazioa derri- gorrez izan behar du argia, baldin

eta biritarren eskubideak bermatu nahi badira. Azken hamarkadan aurrerakada nabarmena izan da euskal administrazioan. Itzultzaileok oso argi daukagu itzultzen duguna biritarrek erraz ulertu behar dutela, eta gaur egun badaude euskaraz, gazteleerazkoak baino itzulpen argiagoak, zehatzagoak eta zainduagoak. Hala ere, egia da, urte batzuetan itzulpen simboliko eta alferrrikako asko egin direla. Arazoa gainditzeko ezinbestekoa da itzulpen politika egokia finkatzea: lebertasunak ezarri, zer itzuli behar den, eta zer ez erabaki. Azken finean, elebitasunak ez du dena bi hizkuntzetan argitaratu behar denik esan nahi.

**Ai: Eta itzulpen literarioa?**

**J.E:** Azken urteotan, administrazioan bezala, kalitateari dagokio-



nez, urrats handiak eman dira. Idazle batzuek jatorrizko testuak baino itzulpen hobeak egin izan direla ere esan dute. Euskaraz itzulpen onak egon daitezzen, idazle onak behar ditugu. Egia da orain arte kanpora ez dugula asko itzuli, baina behar bada, ez ginen behar bezain ezagunak. Gaur egun kanpora itzultzeko moduko nabikoa lan egiten dira Euskal Herrian. Aipatzekoa da bestalde, itzultzaileen elkartearen bidez, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzak direla medio, literatura unibertsaleko lan asko zabaltzen ari direla euskaraz. Orain arte 47 liburu argitaratu dira, eta 90en bat itzultzeko asmoa daukagu.



### “Jatorrizko testuak baino itzulpen hobeak egin izan dira”

**Ai: Iruditzen zait, orain dela gutxi arte, eskoletan hizkuntz ikasketei behar bezalako garrantzia ez zaiela eman.**

**J.E:** Europako beste herri batzuk gu baino aurreratuagoak daude, baina kontuan hartzekoa da bestalde, euskara berreskuratzeko, eskoletan batez ere, azkenengo urteetan egin den abalegin handia, eta beharbada, orain dela gutxi arte beste hizkuntza batzuen ikasketei ez zaito behar bezalako arretarik eskaini.

**Ai: Noizko itzulpen lizentziatura?**

**J.E:** Izan dira desagertutako itzultzaile eskolak. Gaur egun EHUak eta Deustuko Unibertsitateak eskaintzen duten masterra besterik ez dago. Aspaldi konturatu

ginen prestakuntza normalizatua behar zela behar bezalako profesionalak sortzeko, eta itzulpenen kalitatea hobetzeko. Lizentziatura ezinbestekoa da, eta proiektua FAEko nabiz Nafarroako unibertsitateen eskuetan dago. Nik uste dut epe ertainean izango dugula lizentziatura. Orain arte arituz eta norbanakako lana eginez, itzultzen ikasi duen itzultzaile asko dago, baina garbi dago prestakuntza berezia behar dela; hizkuntzak ikastea ez da nabikoa; teoria ikasi behar da, eta gaiak eta teknikak landu behar dira.

### “Hamabiren bat interpretari daude gaur egun EHan”

**Ai: Interpretaritzza ere gero eta gehiago zabaltzen ari da?**

**J.E:** Gero eta eskari handiagoa dago, batzar publikoetan nabiz pri-

batuetan. Gaur egun hamabi interpretari profesional inguru daude Euskal Herrian. Ez dago, bala ere, ikasketa akademikorik, eta elkarteak prestakuntzarako mintegi eta ikastaro batzuk eskaini nahi ditu.

**Ai: Zer asmo dauka EIZIE-k?**

**J.E:** Nabikoa proiektu dauzkagu esku artean: literatur unibertsaleko itzulpenak plazaratzen jarraituko dugu, eta baita Senez al-dizkaria ere. Gainera, aurten beharbada, argia ikusiko duen euskal itzulpenen katalogoa lantzen ari gara: XVI. mendetik, Leizarragatik hasi, eta 1995. urtera arte euskal testugintzan izan diren itzulpen guztien aipamenak eta erreferentziak jaso nahi ditugu. Administrazio eta justizia alorreko interes handiko ikastaroa ere eskainiko dugu aurki. Kanpora begira, azkenik, elkarteak gizarteratzea eta ezagunago bihurtzea nabiko genuke. ■



**ILLUMBE, S.L.**  
Autoelektrizitatea



**LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK**  
Pablo Gorosabel, 48  
☎ 65 54 76 **TOLOSA**  
Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
☎ 59 24 11 **ANDOAIN**

FERRETERIA

**GOROSTIDI**

BURDINDEGIA

**SUKALDERAKO TRESNERIA**

Nagusia, 3 — ☎ 59 14 80 — **ANDOAIN**  
Nagusia, 18 — ☎ 69 22 37 — **BILLABONA**


Zizurkil

# JUAN MARI ETA PEIO GARIN ANAIAK

## Oso gazte zaildutako korrikalariak

*Mutil kozkorrak zirenetik egiten dute korrika: haur zirenean Odolkie baserritik kalerako bidea eginenez, eta behin kozkortu eta gero, Euskal Herrian diren eta ez diren atletismo eta kros lasterketa guztietan parte hartuz. 20 urte egin dituzte korrika, eta oraindik ere korrika jarraitzen dute. Kontaezinak*

*dira irabazi dituzten sari, kopa eta dominak. Juan Marik hemendik aurrera, lasterketak irabazteagatik baino gehiago, afizioz jarraituko du; Peiok berriz, badauka oraindik ere indarrak neurtzeko lasterketa bat edo beste buruan. Garin anaiak; bizitza atletismoari eskainitako bi zizurkildarren historia.*



*Juan Mari eta Pello Garin*

*"Gipuzkoako atlestimoak korrikalari handirik eman behar badu, Peio dugu bori", dio Juan Marik anaiari buruz, harro eta segurtasun handiz. Eta hala izango da, lasterketa ugari irabazitakoa baita Peio: eskolarteko lasterketetan nabarmendu zen hasieran, Gipuzkoako txapeldun izatera iritsi zen berehala, Euskadikoa eta Espainiakoa ondoren, eta munduko bi txapelketatan, aurreneko postuak lortu ditu. Iaz berriro ere Euskadiko txapeldun genuen.*

*Juan Marik lehenengo aldiz 19 urterekin egin zuen korrika Espainiako selekzioan. Oso gazte irabazi zuen, halaber, Behobia-Donostia lasterketa, eta duela urte gutxi batzuk berriro lortu zuen lehena izatea.*

*Aurki ikusiko dugu, bestalde, Espainiako kros txapelketan: "38 urte dauzkat eta oraindik selekzioarako deitzen naute", azaldu digu, krosak azken urteotan izan duen jaitsiera nabarmena azaltzeko, aspaldi ez baita korrikalari berririk irten: "Lasterketa ugari dago Euskal Herrian, baina partebartzea ez da oso handia".*

***"20 urterekin indarra bai,  
baina nahikoa  
esperientziarik ez"***

Korrikalaria 30 urte inguru betetzean dago. Garin anaien ustez, sasoirik onenean: *"20 urterekin indar handia izan obi da, baina esperientzia ere oso beharrezkoa da"*. Eta atletismoan zer esanik ez; oso kirol gogorra da, sakrifizio eta prestakuntza handia eskatzen ditu, eta adinak, nonbait, horri guztiari aurre egiteko heldutasuna ematen du. Horregatik hain zuzen ere, gaur egun ez dira asko aurrera egitea lortzen duten korrikalariak, besteak beste, erakundeen aldetik kiroletan baztertuenetakoa izan delako. *"Martin Fiz edo Diego Gartzia bezalako figurak nabarmendu dira azkenengo urteotan; publizitatea eta beste bainbat laguntza izan dituzte-dioe-, gure garaian ez zegoen horrelakorik"*.

### Krosa nahiago

Beren korrikalari mirestuenen artean atletismoaren historian berebiziko garrantzia izan duten Carlos López portugaldarra eta Mariano Haro espainiarra daude. Eta hain zuzen ere, pistan nahiz krosean beti ongi moldatzen ziren korrikalariak izan direlako. Garin anaiei pistan baino gehiago, mendian korrika egitea gustatzen zaie, paraje ezberdinetan ibiltzeko aukera ematen duelako, eta ziur aski, herriek ere ohituagoak daudelako: *"Dena den, edozein korrikalariaren ametsa da Olinpiadetan pistaren batean korrika egitea"*. Horretarako ordea, antza denez, ez da nahikoa korrika ongi egitea, korrikalariengandik at dauden beste arrazoi batzuk ere izaten dira tarteko.

Garin anaiak garai eta belaunaldi jakin batekoak dira: euren kasa egin dituzte beti entrenamenduak, laguntza teknikorik gabe, batak besteari begiratu eta esperientziak erakutsitakoak ikasiz; inoiz ez dute erakundeen laguntzarik izan, ezta publizitate etxe handirik babesteko. Bere kabuz, eta beren lan jarrai eta etengabeari esker zaildu dira Garin anaiak; *"alde horretatik, gaur egungo korrikalari afrikarren antza pixka bat badaukagu"*.

## "Afrikarengandik asko daukagu ikasteko"


*"Aireportutan gaduko dira, baina korrika inork ez die aurea hartuko"*, esan digu Juan Marik. Afrikarren partehartzeak atletismora iraultza ekarri du Garin anaien esanetan: *"Naturak berak emandako erraztasuna daukate, eta gainera, bizi diren lekuetan oso oxigeno maila baxua dago, eta beren arnasketa abalmena izugarria da"*. Zizurkildarren esanetan, asko daukagu oraindik afrikarengandik ikasteko.

### Kirola eskoletan

Haur eta gazteek eskoletan egiten duten kirolari buruz ere hitz egin dugu. Argi dago, garai batean bai-


no atletismo lasterketa gutxiago daudela, eta beste kirol batzuk daukatela lehentasuna. Bestalde, Garin anaiei egoki iruditzen zaie 14 urte bitartean neska-mutilek era guztietako kirolak egitea, baina gehigizkoa nahasmena ez ote dieten sortzen ere zalantza daukate.

Juan Marik eta Peiok egunero egiten dute korrika: *"Urteak egin ditugu egun bat bera ere butsik egin gabe"*, esan digu Juan Marik. Dena den, urteak ez dira alferrik igarotzen, eta Zizurkilgo bi korrikalari handi hauek gaur egun lasterketez gain, badauzkate beste ilusio eta helburu batzuk. Berrito jaioko balitz txirindulari izango litzatekeela esan digun Juan Marik, 40 urte betetakoan, heteranoen mailan afizioz korrika egiten jarraitzeko asmoa dauka. Peio, gaur egun lesionatuta dago, hala ere, bere indarrak neurtzeko bizpahiru lasterketa badauzka oraindik buruan. Dena dela, orain artekoa ez da lan txikia izan, emaitzak ere paregabeak. Beren bizitzaren atal handi bat eskaini dioten bi zizurkildarrek, batere zalantzarik gabe esan digute, atletismoa kiroletan onuragarrietakoa dela. ■



Juan Mari Elgoibarren korrika, 1993

## ANDOAIN. 1928KO URTARRILAK 28



**E**zkerretik eskuinera: Benito Garagorri alka tea, Joxe Inazio Gaztañaga aguazila, Iku-tzako Iñaxio, Joxe Mendikute basozaina eta Gorostidi baserriko Joxe Ramon.

1928ko urtarrilaren 28-29 bitarteko gauetan ikaragarritzko ekaitza egin zuen. Tximista batek elizako kanpandorreko tximistorratza jo eta argi instalazioa leherrarazi zuen. Eztanda horren indartsua izan zen, ezen instalazioa kokatuta zegoen hormako zortzi arroako (100 kilo baino gehiago) harri puska atera baitzuen bere lekutik. Dorre txikiko eskailerek, eta kanpaiak eusten zieten habeek su hartu zuten ondoren, eta kanpai handia lurrera erori zen, izugarritzko kolpea joz. Orduan, gaur egun bezala, Andoaingo parrokiako kanpaia Gi-

puzkoako handiena zen, 2.250 kilo dauzka.

Kanpaiak lurraren kontra jo zuenean, pitzatu egin zen. Konpontzera eramanez aurretik, harrobiko langileek txikitu egin zuten mailuz jota. Tren Txikin igo eta Iruñeara eramanez zuten konpontzera. Handik hilabete ingurura ekarri zuten. Kanpandorrera igotzeko sekulako lanak ibili zituzten Roke eta Benito Esnalek, Demetrio Usandizagak eta Patxi Eizmendik.

Elizako kanpaiak egun haietan eragin zuen ikusmira, jaietan baino jende gehiago bilduarazi omen zuen Goikoplazan.

*Informazio emaila:*

*Joxe Eizmendi, 1928an, eta gaur egun, San Martin parrokiako sakristaia.*

**ARANBURU**  
agentzia

Aseguruak - Aholkularitza

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea  
☎ 59 08 14  
ANDOAIN

winterthur

ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAK

**ALDAMA - TAPIA**

KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!

Kaleberria 22  
Telefonoa 59 44 76 - 30 01 67

20140 ANDOAIN

## XERAPIO MUJIKA

Ostiral Santuko  
debozioa

- Aurten ere igoko al zara **Erniora Ostiral Santuan?**

- Ondo baldin banago, bai behintzat. Hasi nintzenetik ez dut inoiz butsik egin. Aurten igotzen banaiz. 49. aldia izango da, hamar urterekin igo nintzen aurrenekoz.

- **Jende asko igotzen al da egun horretan Erniora?**

- Izugarri: urtetik urtera, gehiago. Eguraldia ona edo txarra izan, jendea berdin-berdin igotzen da, egun berezia baita. Inguruko herrietako asko igotzen dira, eta baita ezezagun asko ere. Urtean egun horretan bakarrik igotzen direnak ere asko dira. Urtero igotzen direnen artean, ezagun asko egin ditut urteetan.

- **Noizkoa da obitura?**

- Aspaldikoa izan behar du; nere ama eta aita zenak ezagutzen zuten.

- **Zergatik debozio hori?**


- Fededunontzat Ostiral Santua egun serioa da, alde batetik, eta pozgarria, bestetik. Eta Ernioak badauka Euskal Herrian beste inongo mendiak ez daukan berezitasuna: gurutzeta bidea, hamalau geldialditan banatuta. Dena den, aitortu behar dut berrogeita lau urteotan ez dudala beti gurutze bidea egin. Batzuetan Larrauldik zuzen-zuzen igo izan naiz gurutzerara, eta asko izerditi eta gero, ez da komeni izaten kalbariora egitea, gurutzetik gurutzerara pausoa oso motza izaten baita, geldialdi bakoitzean otoitz eginez, eta bozteko arriskua dago. Gainerakoan, Zelatundik igo izan naizenean, beti egin izan dut. Jaistean ordea, bedeinkatutako uztaiak pasatzen ditut beti burutik behera.

- **Zu, bestela ere, mendizalea zaitugu, ezta?**

- Bai, bai. Ni edozein egunetan igotzen naiz Erniora: ia larumbatero eta igandero. Txiki-txikitatik bistabistan izan dut Ernio, eta horrela nago obituta. Arantzazuko buelta ere urtean bi aldiz egiten dugu oinez. Aizkorrira joatea era asko gustatzen zait. Eta inguruko martxa gebientsuenetan ibiltzen naiz. Muturrez mutur ibiltzea gustatzen zait.

- **Asteasun bertan garai batean ere egiten omen zen kalbariora.**

- Elizatik atera eta kanposanturaino joaten zen jendea. Hor ere hamalau gurutze daude. Baina uste dut obitura nabikoa galduta dagoela. Gaur egun elizan bueltan baino ez da egiten. Garai batean Jesukrito bizkarrean hartuta irteten ginen, gauean goardia egin ondoren, eta Erramu Egunean hasita joaten ginen bezperetara.

PERTSONAIA  
EZKUTUA

Gure pertsonaia ezkutu berriak badauka aurrekoarekin parekotasunen bat edo beste. Ez dugu uste oraingo honetan ere asmatzea zaila gertatuko zaizuenik. Horregatik, aurrekoan bezainbeste gutun jasotzea espero dugu.

**Andoaingo Txoko erretegiak, bi lagunentzako bazkaria edo afaria** eskaini digu sari gisa. Beraz, animatu, eta zorte on!

Gutunak honako helbidera bidal itzazue, edota bestela utzi zuen mezua erantzungailuan. Tlf: 30 07 32

AIURRI Dr. Huizi kalea 15. behea.  
20140 Andoain.



**Erreserba telefonoa: 59 29 57**

• Eguneko menua • Bazkari eta afariak kartara  
• Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak...

## IKASTAROAK

## ANDOAIN

Martxoak 30-31: Ikerfolk taldeak dantza ikastaroa eskainiko du Allurralde kiroldegiko gimnasioan. 25 laguntzako saioa izango da.

## BILLABONA

**Ikastaroak langabetuentzat:** Izenematea: apirilak 15-26 Tolosako udaletxean: Tlf: 65 45 01

**Gozogintza:** 580 ordu eta hiru hilabeteko praktikak, 15 laguntzatzat.

**Iturgintza:** 580 ordu eta hiru hilabeteko praktikak, 15 laguntzatzat.

**Iturgintza instalatzaile:** 30 ordu, 3 ordu egunero, 30 laguntzatzat.

## KULTUR ETXEA ANTOLATUTA

**Zurlanketa:** astearte eta ostegunetan 18.00-20.00. Iraupena: 30 ordu.

**Argazkigintza:** astearte eta ostegunetan. Iraupena: 30 ordu.

## MENDI IRTEERAK

## ANDOAIN

**Apirilak 4-8:** Euskalduna mendigoizale taldeak antolatuta, **Salamanca** Bejar ingurura lau eguneko ibilaldia: Peña Francia-Sierra de Gata-Calvitero (2.401m.).

## BILLABONA

**Martxoak 31:** Aizkardi mendi taldeak antolatuta, **XXVIII. "Aizkardi" martxa.**

## MERTATU TXIKIA

**Artzain alemaniar arrazako txakurkumeak salgai.**

Tlf.: 69 27 75 Iñaki . Asteasu

## BESTE

## ZIZURKIL

**Martxoak 31:** Muskil elkarteak antolatuta, **ume eta gurasoentzat egun pasa:** 10.30etan Zizurkil Goiko frontoitik abiatutako ibilaldi neurtua: 13.30etan frontoian bazkaria: 15.00etan futbol partiduak eta jolasak; 16.30etan pottoken gainean ibilaldia; 17.30etan antzerkia; eta amaitzeko kale-jira buruhandi eta trikilariekkin.

**Apirilak 9-12:** Aste Santuko **oporretan euskaraz bizi eta jolasteko** ekintzak: 3-10 urte bitarteko haurrentzat goizeko 10.00-13.00. Izenematea: Aurrera Plazako udal bulegoetan.

## ZINEMA

## BILLABONA

## GUREA ZINEMA ARETOAN

**Apirilak 5-6-7-8:**  
"Jumanji"

**Apirilak 12-13-14-15:**  
"Show girls"

**Apirilak 19-20-21-22:**  
"Heat"

**Apirilak 26-27-28-29:**  
"Sentido y sensibilidad"

## J. BILBAO: ERRESPETOA NON?

Honako tartetxo honetan orain dela gutxi gertaturikoa salatu nahiko nuke. Izan ere, Andoaingo anbulatorioan dagoen J. Bilbao "sendagilearengana" joan nintzen errebisio bat (analisiak, tentsioa...) egingo al zizkidan eskatuz, zazpi eguneko baraualdi bati ekiteko gaitasuna nuen edo ez ikusteko. Sendagile honek ordea, jarrera erabat aldatu zuen, builaka iraintzen hasi zitzaizkalarik: "¡Una huelga de hambre de siete días es un cachondeo!, ¿por qué no te cuelgas de un puente para lograr vuestro objetivo con todas sus consecuencias?", "tantos años de trabajo para que luego se ponga el puto Aznar en el gobierno y nos quite todo, o que venga un gilipollas como tú con estas tonterías...".

Hau dena jasan eta gero, lagun batekin koordinadorearengana joan nintzen gertaeraren berri emateko asmotan. Hitzegin ondoren, beste aukera bat

emateko asmotan joan ginen Bilbaorekin hitzegitera, momentu txar bat edozeinek eduki zezakeela eta ondorenean damu zitekeenaren ustetan. Izan ere, gizaseme orok bezala, bigarren oportunitatea merezi zuelakoan nengoen salaketetan sartu aurretik. Joan ginen bada, bi lagunak gauzak konpontzera eta lasai hitzegitera gindoazela aldarrikatuz eta here konportamendua are eta bortitzagoa izan zen. Lehen esanikoak mantentzeaz gain, irain gogorak jasan genituen: "porque tu no eres ni persona" (gutako bat negarrez hasi zenean), "encima te dará pena, pues que sufra...".

Esperientzia hau pasa ondoren, galdera bat darabilkit momentuoro nire barnean: euskaldunon hizkuntz eskubideak ez errespetatzeaz gain, diskriminazio ideologikoa hauek jasan behar al ditugu?

A. Iasa eta A. Elizondo





BETERRIKO ALDIZKARIA





# AIURRI

## UDALEN BABES ETA

LAGUNTZAREKIN

M. LARRAMENDI KULTUR  
BAZKUNAK ARGITARATZEN DU



Haur eta gaztetxoentzako  
jantziak

*Jantzi Denda*



Santiago kalea, 2 - Tel. 69 38 59 - 20150 Billabona

Super 55

Super 55 Libreta



Super 55  
jendearentzat



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

Taberna · Jatetxea

# Buruntza

- Eguneko menua
- Etxeko plater bereziak
- Lagunarteko despedidak
- 100 pertsonentzako jangela

Kaletxiki, 15 · Tel: 59 06 47  
ANDOAIN

## ZURE JAUNARTZE ARGAZKIAK



BHIKOHEN

Kale Nagusia, 19  
☎ 30 07 27  
ANDOAIN